**Azalpen txostena, Diputatu Nagusiaren Alorraren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusiei eta haiek prestatzean erabilitako irizpideei buruzkoa.**

**010 Programa - Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritza**

Bere zeregin nagusiena da bultzatzea, koordinatzea eta kontrolatzea departamentuko organo eta zerbitzuek garatutako ekintzak, laguntza materiala, juridikoa eta aurrekontuen arloko laguntza ematea diputatu nagusiari, zuzendaritza nagusiei eta zerbitzuei eta departamentuko informazio eta administrazio sistemak hobetzea ekar ditzaketen ekintzak bultzatzea.

Zentzu horretan, 010 programak ez du ezberdintasun nabarmenik 2019rako ekitaldirako onartutakoarekin, kopuruei dagokionez.

**020 Programa – Identitate korporatiboa eta Harreman Instituzionalak**

Programa hau berria da, eta bere misioa da Gipuzkoako Foru Aldundiaren kultura korporatiboa eta nortasuna zaintzea eta bermatzea, eta instituzioa hiritarrengana, gizarte-eragileengana eta gainerako erakundeengana hurbiltzeko harremanak sustatzea.

Programa honen lan ildo nagusiak dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren irudia berritzea eta herritarren aldetik erakundeari buruzko iritzi eta balorazio ona lortzea; Plan Estrategikoan oinarrituta, komunikazio plan bat lantzea eta martxan jartzea, legealdiko proiektu estrategikoak eta lehentasunak aintzat hartuko dituena; eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta gainerako erakundeen arteko harremanak indartzea.

**100 Programa - Diputatu Nagusiaren Kabinetea.**

Bere misioa da Foru Aldundiaren gobernuaren ekintza-arau orokorrak finkatzea, foru diputatuen jokabidea zuzenduz eta koordinatuz eta jardueren oinarrizko estrategiaren ezarrera 2020-2023 Plan Estrategikoan ezarritakoaren arabera.

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Área del Diputado General respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

**Programa 010 - Secretaría del Área del Diputado General**

Su principal cometido es impulsar, coordinar y controlar las actividades desarrolladas por los distintos órganos y servicios del departamento, prestar el apoyo material, jurídico y presupuestario que requieran tanto el diputado general como las direcciones generales y los servicios, así como impulsar cuantas actividades conlleven una mejora de los sistemas administrativos y de información del departamento.

En este sentido, el programa 010 no presenta diferencias significativas en relación con el aprobado para el presente ejercicio 2019 en lo que respecta a sus importes.

**Programa 020 – Identidad Corporativa y Relaciones Institucionales**

Este programa es nuevo, y tiene como misión preservar y garantizar la cultura corporativa y la identidad de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como fomentar las relaciones para acercar la institución a la ciudadanía, a los agentes sociales y al resto de entidades.

Las principales líneas de actuación de este programa son renovar la imagen de la Diputación Foral de Gipuzkoa y lograr una buena opinión y valoración de la institución por parte de la ciudadanía; elaborar y poner en marcha un plan de comunicación basado en el plan estratégico, y que recogerá los proyectos estratégicos y las prioridades de la legislatura; y fortalecer las relaciones entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el resto de entidades.

**Programa 100 - Gabinete del Diputado General.**

Tiene como misión establecer las directrices generales de la acción de gobierno de la Diputación Foral, dirigiendo y coordinando la actuación de los diputados y diputadas, y liderar la implementación de la estrategia básica de actuación de acuerdo con lo establecido en el Plan Estratégico 2020-2023.

Aipatu behar da aurtengo ekitaldian programa horretatik eman diren zenbait dirulaguntza izendun Etorkizuna Eraikiz programan kokatu direla 2020an urtean. Soilik Eusko Ikaskuntzari eta Eskola Txikien festaren antolatzaileei ematen zaien dirulaguntzak mantentzen dira Diputatu Nagusiaren Kabinetean.

Cabe destacar que varias subvenciones nominativas que en el presente ejercicio se han otorgado desde este programa pasarán a formar parte del programa de Etorkizuna Eraikiz en el ejercicio 2020. Solamente las ayudas a Eusko Ikaskuntza y al organizador de la fiesta de las "Eskola Txikiak" se mantienen en el programa del Gabinete del Diputado General.

**200 Programa – Estrategia**

Programa honi dagokio diputatu nagusiari zuzeneko laguntza eskaintzea epe ertaineko ikuspegi estrategiko bat emanez, planifikazio estrategikoa sustatuz, aldi berean, gobernantza ireki eta elkarlanekoa sendotuz, Etorkizuna Eraikiz ereduaren bitartez. Hori guztia politika publikoak modu eraginkor eta efizientean kudeatzeko helburuarekin.

2020. urteko aurrekontuan protagonismo berezia hartzen dute Etorkizuna Eraikiz ekimenak, etorkizuneko erronkek eskatzen dituzten erantzunak lortzeko gobernuaren ekintza gidatu nahi duen elementu nagusia denak. Etorkizuna Eraikiz ekimena martxan jartzeko arrazoiak asko dira eta hiru multzotan elkar ditzakegu:

a) Aldaketa ekonomiko, sozial eta politikoak oso azkar gertatzen dira egoera konplexua eta ziurgabetasun handikoa bihurtuz. Horrek, behartu egiten ditu eragile ekonomiko eta sozialak egoera aldakor eta konplexu horretara egokitzera, administrazio publikoak barne. Hori dela eta, esperimentazioa izango da EE ekimenaren ezaugarri nagusienetako bat.

b) Zalantzazko errealitate horren aurrean, gobernuek bultzatzeko eta eraldatzeko duten gaitasuna nabarmen murriztu da. Horregatik, EE ekimenaren bigarren ezaugarria eragile ekonomiko eta sozial ezberdinekin lankidetzan aritzea da.

c) Herritarrek politikarekiko duten desafekzioa nabaria da, herritarrak gero eta aldenduago baitaude jarduera politikotik eta erakunde publikoetatik. Horregatik, nahitaezkoa da herritarren partaidetza sustatzea jarduera politikara binkulatuz.

**Programa 200 – Estrategia**

Corresponde a este programa ofrecer apoyo directo al diputado general aportando una visión estratégica a medio plazo, promoviendo la planificación estratégica, al mismo tiempo que se impulsa un modelo de gobernanza abierto y colaborativo a través de Etorkizuna Eraikiz. Todo ello con el objetivo de gestionar de manera eficaz y eficiente las políticas públicas.

En el presupuesto para 2020 la iniciativa Etorkizuna Eraikiz, como elemento central que quiere guiar la acción de gobierno hacia las respuestas que los retos de futuro exigen, adquiere un protagonismo específico. Las razones para poner en marcha Etorkizuna Eraikiz (EE) se pueden agrupar en tres:

a) Nos encontramos inmersos en un momento de la historia en el que los cambios económicos, sociales y políticos se producen con gran rapidez configurando una realidad compleja y de gran incertidumbre. Lo cual, obliga a los diferentes agentes económicos y sociales, y por ello, también a las administraciones públicas a adaptarse a esta situación cambiante y compleja. Así, la experimentación será una de las características definitorias de EE.

b) Ante esta realidad incierta la capacidad de tracción y transformación de los gobiernos se ha reducido considerablemente. De ahí que la segunda de las características de EE es la de la cooperación con otros agentes económicos y sociales.

c) Por otro lado, es notoria la desafección política de la ciudadanía que se muestra cada vez más alejada de la actividad política y de las instituciones públicas. De ahí la necesidad de colaboración e interacción con la sociedad.

Horretarako, beste ekintza batzuen artean, Etorkizuna Eraikiz – Gipuzkoa Lab laguntza lerroekin jarraitzen da, lurraldearentzat proiektu berritzaileak sortzeko. Ekintza publikoaren erronken inguruko ezagutza sendotzeko helburuarekin, hitzarmenak sinatzen dira Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Tecnun Nafarroako Unibertsitatearekin. Hausnarketa akademikoa lerrokatu nahi da lurraldearen erronkei eta lehentasunei begira.

Entre otras actuaciones, prevé continuar con la línea de ayudas Etorkizuna Eraikiz – Gipuzkoa Lab que tiene por objetivo la generación de proyectos innovadores para el territorio. Con el objetivo de fortalecer el conocimiento en torno a los retos de la acción pública, se renuevan convenios con la Universidad del País Vasco, Universidad de Deusto, Mondragon Unibertsitatea y Tecnun Universidad de Navarra. Se pretende alinear la reflexión académica hacia los retos y prioridades del territorio.

2019. urtekoarekin alderatuta, programa honek bere gain hartu eta bultzatuko ditu Nazioarteko Harremanen ekintzak, GFAren jarduera nazioarteko sareekin lotuz eta Lurralde Historikoaren presentzia nazioartean bermatuz.

Como novedad respecto al 2019, este programa asumirá e impulsará las acciones de Relaciones Internacionales, conectando la actividad de la DFG con redes internacionales y garantizando la presencia del Territorio Histórico a nivel internacional.

Bestalde, apustu sendoa egin da kultura demokratiko berria sustatzeko, hori baita legealdi honetarako foru gobernuak duen lehentasunetako bat.

Por otra parte, se realiza una fuerte apuesta para promover la nueva cultura democrática, una de las prioridades del Gobierno Foral para esta legislatura.

Era berean, nabarmendu behar da orain arte Diputatu Nagusiaren Kabinetetik eman izan diren dirulaguntza izendun batzuk Etorkizuna Eraikiz programatik kudeatuko direla, ekimen horrekin duten lotura dela eta. Laguntza horien artean daude, besteak beste, Huhezi, Agirre Lehendakaria Fundazioa, Gizabidea Fundazioa edo Jakin Fundazioari emandakoak.

Cabe destacar, asimismo que varias subvenciones nominativas que hasta ahora se habían concedido desde el Gabinete del Diputado General se gestionarán desde el programa Etorkizuna Eraikiz, dada la vinculación que tienen con esta iniciativa. Entre estas ayudas se encuentran, entre otras, las otorgadas a Huhezi, Agirre Lehendakaria Fundazioa, Gizabidea Fundazioa o Jakin Fundazioa.

Azkenik, Etorkizuna Eraikiz ekimenari lotutako lau dirulaguntza izendun berri azpimarratu behar dira: Arizmendi Kooperatiba Elkartea, Isea Kooperatiba Elkartea, ISEAK Fundazioa eta Torre Olaso Fundazioa.

Por último, subrayar cuatro nuevas subvenciones nominativas ligadas a la iniciativa Etorkizuna Eraikiz: Arizmendi Sociedad Cooperativa, Isea Sociedad Cooperativa, Fundación ISEAK y Fundación Torre Olaso.

**300 Programa – Komunikazioa**

Programa honen helburua da Aldundia herritarrengana hurbiltzea, horien pertzepzioa hobetuz eta eguneratuz, eta sendotzea barne komunikazioa eta Batzar Nagusiekikoa, gardentasunean aurrera pausuak emanez eta langileen inplikazioa areagotuz.

Programa honen barnean Komunikazio Plan berria gauzatuko da, eta aldi berean komunikazio proiektu berriak exekutatuko direlarik. Azpimarratzekoa de ere komunikazio digitalean garapena, web orriak aztertzeko, IZFEren bitartez landuko dela.

**Programa 300 – Comunicación**

El objetivo de este programa es acercar la Diputación a la ciudadanía, actualizando y mejorando su percepción, y reforzar la comunicación interna y con las Juntas Generales, dando pasos hacia la transparencia e incrementando la implicación de los y las trabajadores/as.

Dentro de este programa se realizará un nuevo Plan de Comunicación, al tiempo que se ejecutan nuevos proyectos de comunicación. Destacar, igualmente, que el desarrollo en comunicación digital para la revisión de las páginas web se trabajará con IZFE.

Bukatzeko, adierazi behar da 2020ko aurrekontuan jasotzen dela 2018an komunikazio espazioak planifikatu eta erosteko esleitutako kontratazioaren luzapena.

**400 Programa – Giza Eskubideak eta Kultura Demokratikoa**

Giza eskubideak oinarritzat hartuta, helburu nagusia da gipuzkoarren elkarbizitza hobetzea: horretarako, hainbat esparrutan ariko da lanean eragile desberdinekin, bakearen eta giza eskubideen kultura sendotzen lagunduz, gure lurraldean dagoen aniztasuna sustatuz eta diskriminazio eza funtsezko euskarritzat hartuz, eta eragile politiko eta sozialen artean kultura demokratikoa bultzatuz.

Zuzendaritzak lehenesten dituen jarduera esparruak dira tokiko politikak, eta gizarteko eragileekin eta gainerako erakundeekin elkarlana, giza eskubideak eta giza duintasuna oinarri direlarik. Zentzu horretan, sendotuta daude *Bizikidetza Lantzen* programa eta udal eremuan bizikidetza sustatzeko programa.

Bi dirulaguntza izendun berri islatzen dira 2019ko ekitaldiarekin alderatuz, lehenengoa Kriminologiaren Euskal Institutuari, giza eskubideen urraketen biktimen egoera eta beharrak ezagutzeko; eta bigarrena ZAS! Zurrumurruren Aurkako Sareari, talde jakin batzuen giza eskubideak auzitan jartzen dituzten zurrumurruen aurka egiteko helburuarekin.

**500 Programa – Hizkuntza Berdintasuna.**

Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko aurrekontua oinarritzen da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kudeaketa Plan Estrategikoak ezarritako helburuetan eta jarduketa ildoetan.

Helburu nagusia da lehenespenez euskara erabiltzea bai Aldundiaren barruan, baita lurraldeko gizarte eragileekin ere, hiztunen arteko berdintasuna sustatzeko.

Hiru jarduketa ildo markatu dira helburu hori lortzeko:

- Aldundian euskara ohiko zerbitzu hizkuntza, laneko hizkuntza eta komunikazio hizkuntza

Por último, cabe señalar que en el presupuesto de 2020 se ha incluido la prórroga de la contratación adjudicada el año 2018 para la planificación y compra de espacios de comunicación.

**Programa 400 – Derechos Humanos y Cultura Democrática**

Tomando como base los derechos humanos, el objetivo principal de este programa es mejorar la convivencia de la ciudadanía guipuzcoana: para ello, se trabajará en diferentes ámbitos con diferentes agentes, contribuyendo a consolidar la cultura de la paz y de los derechos humanos, fomentando la diversidad existente en nuestro territorio y tomando como soporte fundamental la no discriminación, e impulsando la cultura democrática entre los agentes políticos y sociales.

Los ámbitos de actuación que prioriza la Dirección son las políticas locales y el trabajo conjunto con agentes sociales y las restantes instituciones, basado en los derechos humanos y la dignidad humana. En este sentido, se dan por consolidados los programas *Bizikidetza Lantzen* y de fomento de la convivencia en el ámbito municipal.

Como novedad respecto al ejercicio 2019, se conceden subvenciones nominativas al Instituto Vasco de Criminología, cuya finalidad es conocer la situación y necesidades de las víctimas de vulneraciones de derechos humanos; y a ZAS! Zurrumurruren Aurkako Sarea, que tiene como objeto combatir los rumores que cuestionan los Derechos Humanos de colectivos específicos.

**Programa 500 – Igualdad Lingüística.**

El presupuesto de la Dirección General de Igualdad Lingüística para 2020 se basa en los objetivos y líneas de actuación establecidos por el Plan de Gestión Estratégica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El objetivo central es impulsar el uso por defecto del euskera, tanto en la Diputación como con el resto de agentes del territorio, a fin de fomentar la igualdad entre hablantes.

Se han marcado tres líneas de actuación para conseguir dicho objetivo:

- Fortalecimiento y mejora de los programas en curso para lograr el uso habitual del euskera

izatera iritsi ahal izateko martxan dauden programak indartu eta hobetzea.

- Udalekin, hizkuntza sektorearekin eta Gipuzkoako eragile nagusiekin elkarlanean jardutea, politikak lerrokatzeko eta pertsonen hizkuntza aukerak berdintzera bideratutako proiektuak partekatzeko.

- Berrikuntzarako jarritako baliabideak indartzea, hainbat ikerketa lerro abiarazteko (hiztunen aktibazioa, hizkuntza ulertzeko metodologia bizkorra, autoritate tekniko bat diseinatzea, enpresetako hizkuntza planetarako neurri fiskalak, 10-16 urteko segmentuan euskararen erabilera sustatzeko plan sistematikoa).

Berrikuntza nagusietako bat da Euskarazko toki hedabideentzako xedatutako aurrekontuaren igoera, helburu duena euskarazko hedabideak bultzatzea.

Lantokiko prestakuntza dirulaguntza lerroa kendu da, helburu gisa lantokietan euskarazko formakuntza eskaintzea zuena.

Era berean, Euskal Herriko Ikastolak elkarteari eta Euskaltzaindiari (mendeurrena) emandako dirulaguntza izendunak ezabatu dira, dagoeneko diruz lagundutako jarduerak burutu direlako.

Azkenik, doikuntza txiki bat egin behar izan da hornidura handieneko dirulaguntzetan (euskararen sustapena udaletan, toki hedabideak, IKT), aurrekontuaren hazkunde aurreikusiaren helburua betetzearren.

**700 Programa – Berdintasuna**

Berdintasuneko programaren misioa da bizitzako eremu guztietan emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzea. Alde batetik, foru politika guztietan genero ikuspegia txertatzen lagunduz, eta bestetik, lurralde mailan, tokiko berdintasunerako politikak sustatuz, talde feminista eta emakume taldeen lana indartuz eta gizartearen berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa eta giza aldaketa eraginez.

Azpimarratu behar da III. Berdintasunerako Foru Plana bultzatzeko burutuko den lana. Era berean, kontratu bat proiektatzen da Udal

como lengua de servicio, de trabajo y de comunicación por parte de la Diputación.

- Trabajo colaborativo con los ayuntamientos, el sector lingüístico y los principales agentes de Gipuzkoa para alinear políticas y compartir proyectos orientados a igualar las opciones lingüísticas de las personas.

- Refuerzo de los recursos destinados a innovación, para iniciar diversas líneas de investigación (activación de hablantes, metodología rápida para la comprensión lingüística, diseño de una autoridad técnica, medidas fiscales para los planes lingüísticos en la empresa, plan sistémico para fomentar el uso del euskera en el segmento 10-16 años).

Una de las novedades más importantes es el incremento de la dotación presupuestaria para la convocatoria de medios locales en euskera, que tiene como objeto la promoción de medios de comunicación en euskera.

Se ha suprimido la línea subvencionable Formación en el centro de Trabajo, que tenía por objeto la formación en euskera en los centros de trabajo.

Asimismo, se han eliminado las ayudas nominativas a Euskal Herriko Ikastolak y Euskaltzaindia (mendeurrena), debido a que han finalizado los proyectos por los que fueron concedidas las subvencionadas.

Por último, se ha realizado un pequeño ajuste en las partidas de subvenciones más significativas (promoción del euskera en municipios, medios de comunicación locales, TIC), para adecuarnos al objetivo de incremento presupuestario previsto.

**Programa 700 – Igualdad**

El programa de Igualdad tiene como misión la obtención de la igualdad de trato y de oportunidades entre las mujeres y los hombres en todos los ámbitos de la vida. Por un lado, ayudando a insertar la perspectiva de género en todas las políticas forales y, por otro, fomentando las políticas locales para la igualdad en el ámbito territorial, fortaleciendo el trabajo de los grupos feministas y de mujeres, e impulsando en la sociedad la sensibilización y el cambio social a favor de la igualdad.

Cabe destacar el trabajo que se realizará para impulsar el III Plan Foral para la Igualdad. Asimismo se proyecta un contrato para la

mailan berdintasunerako politikak sustatzeko asistentzia teknikoa emateko. Gainera, nabarmendu behar da Berdintasunerako Organoaren ekintzen garapenerako partida.

HerriLab proiektu pilotua indartu egiten da, eta horren adibide da hurrengo 4 urteetarako proiektatzen dela. Gainera, Legorreta, Segura eta Zaldibiako Udalak diruz lagunduko dira berdintasuneko teknikari bat kontratatu dezaten.

asistencia técnica para la promoción de las políticas de igualdad locales. Subrayar, además, la partida destinada a desarrollar acciones desde el Órgano de Igualdad.

El proyecto piloto HerriLab se refuerza y muestra de ello es que se proyecta para los próximos 4 años. Además, se subvenciona a los ayuntamientos de Legorreta, Segura y Zaldibia para la contratación de una persona técnica de igualdad.